

ZARAUTZ / Kontaldia gaur haur liburutegian Irrintziren eskutik

ZARAUTZ. DV. Gaur goizeko 11.30tan haur liburutegian Bakartxoren zapatillak kontaldia izango da haur guztientzako Irrintzi produkzioaren eskutik. Beraz, haurtxo guztiak gonbidatuta geratzen zarete gaur eguerdiko emanaldira.

Bestalde, jakinarazten da udako liburutegiko ordutegia irailaren 8a bitartean ondorengoa izango dela. Astelehenetik ostiralera goizeko 9.00etatik eguerdiko 14.00etara eta arratsalde 17.30etatik 20.00etara. Larunbatetan berriz helduen liburutegiak goizeko 10etatik eguerdiko 13.00etara zabalduko ditu bere ateak. Beraz, ordutegi zabala duzue liburutegiaren erabiltzaileok